

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERABEITIKO UDALA

#### **Jendurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko errolda eta hura ordaintzeko epea irekitzea**

Egin delarik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko errolda, jendurrean jartzen da hamabost egun baliodunetz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igarota, erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsiko da.

Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea:

- a) Borondatezko aldia: 2021eko martxoaren 1etik maiatzaren 1era.
- b) Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza entitateetan kargatuko dira, 2021eko martxoaren 10ean.
- c) Helbideratu gabeko ordainagiriak zerga egoitzetara bidaliko dira eta Kutxabanken bule-goetan ordainduko dira, ordainketa pasabide bidez, udaleko web orria erabilia: [www.erriberabeitia.eus](http://www.erriberabeitia.eus).

Jakinarazten da ezen, borondatezko aldian sarrera egiteko epea amaitu eta ordaindu ez bada, zorrak premiamendu bidez eskatuko direla, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan eta Zerga Bilketako Erregelamendu Orokorra onesten duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuak 70. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoaren arabera, sortzen diren errekargu eta berandutze interesekin.

Ribabellosa, 2021eko otsailaren 8a

*Alkatea*

**MIREN JOSEBE SANTAMARÍA MARTÍNEZ**